

# EUSKARALDIA

## Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan.

### 11+15=26

Euskararen eguna da abenduaren 3a; euskararen eguna da abenduaren 4a. Eta euskarak 365 egun izan ditzan ari gara, milaka lagun, pertsonala bezain kolektiboa den, kolektiboa bezain pertsonala den, ariketa egiten; **euskaraz bizitzea eguneroko ariketa baita.**

**Ekinez...** ekinez aldatzen dira ohiturak. Hizkuntzari **etsiz...** etsiz apurtzen ditugu inertziak. Euskara **jasoz...** jasoz zabaltzen dizkiogu ateak hizkuntzari.

11 eta 15, 26. Bi urteko epean, masiboki eta Euskal Herri osoan 26 egunez egin dugu ariketa. Eta gehiago beharko ditugu, bai, euskararen maratonia luzea baita, entrenamendu asko eta jarraituak behar dituen maratonia. Praktika orok behar du bere ikasketa, partida orok behar du bere beroketa.

### 19

Zenbakizko abizena duen gaitz gaizto batek kolpatu gaitu guztiok. Ikasi dugu harremanak ez direla soilik aurrez aurre gertatzen, makinekin ere aspaldi komunikatzen ginela, etxean eta etxetik ere hizkuntza barreiatzen dugula. Baieztatu dugu etorkizuneko ahobizi eta belarriprest askok kalea, aisialdia, inguru bat nahi eta behar dituela euskaraz bizi ahal izateko. Ikusi dugu ilusioz osatutako hainbat arigunek ezin izan duela normaltasunez aritu. Gogoan izan ditugu ateak ezin zabaldu egon diren taberna, denda, dantza edo musika taldeak eta beste hainbeste. Zorretan gaude haiekin, **Euskaraldi bat zor diegu.**

Baina, era berean, zenbakizko abizena duen birusaren garaietan ere, bestelakoak ikusi ditugu: euskararekiko lotura estua duen herri bat dagoela, zailtasunen aurrean indarrak biderkatzeko gaitasuna duen herri-gogoia dugula, krisialdiari aurre euskaratik egingo dion milaka entitate dagoela, herriz-herri erakunde, gizarte eragile, enpresa eta euskaltzaleak eskutik helduta gauza handiak egin daitezkeela.

### 24/7

“Zenbat gara?” galdetu digu Euskaraldiaren abestiak aurten sarri. Eta, egoerarik zailenetan ere, milaka lagun hizkuntza ohiturei astindu bat emateko prest agertu da berriro ere. Txapa paparrean, irribarreak ikusten zaila den urtean. Milaka lagun kalean, lanean edo etxean gure inertziei aurre egin eta inguruan aldaketak eragiten. Euskararentzat, guretzat, mundu berriak zabaltzen, **espazioak aritzeko gune bihurtzen.**

“Zenbat izango gara?” galdetu dezagun. Biharko, etziko, datorren asteko euskararen herrian etsiko al diogu ariketari? Euskaraz bizitzea eguneroko ariketa baita. Euskararentzako irabazitako ariguneak zaintzea hizkuntza praktikan inbertitzea baita. Herrietan saretzeko sortutako lantaldeak indartzea mugimendu euskaltzalea sendotzeko oinarria baita.

Gaurtik aurrera ere, gehiago, gehiagorekin, gehiagotan jarraituko dugu inertziak apurtzen; egunean 24 orduz, astean 7 egunez. **Euskarak 365 egun ditu eta.**

Ahobizi eta belarriprest, ariguneak osatu dituzuen entitateak: **erronka ederra dugu, elkar zainduz, geroa dugu irabazteko!**